

Prentsa oharra

Nota de prensa



Haur Danborradak irudi berria estreinatuko du

Guztira 4.732 haurrak parte hartuko dute San Sebastian egunean

Kultura zinegotzi Jon Insaustik eta Haur Danborradako pertsonaiek kolorea jarri diote gaur Donostiako Udaletxeko udalbatzar aretoari Haur Danborradaren aurkezpen ekitaldian, eta era berean, ongietorria egin diete Haur Danborrada irudikatzen duten irudi berriei. Callate la Boca etxeko Oscar Caslak egin ditu irudi berriak eta hiriaren kolore adierazgarri gisa, urdina eta zuria aukeratu dira uniformeetarako, danborradaren erreferente izan daitezen eta festan parte hartzen duten elkarte eta kolektibo guztiek erabil ditzaten.

San Sebastian egunean, 12:00etako desfilean, 4.731 hurrek hartuko dute parte, eta hiriko kaleak zeharkatuko dituzte Sarriegiko martxak interpretatuz, 41 ikastetxetan edo elkartetan, 48 konpainia osatuz. Eta konpainia horien guztien buru San Jose ikastetxeko Anir Guyenbat Danbor Nagusia egongo da. Berak zuzenduko du Udaletxetik abiaraziko den danborrada eta berak emango dio hasiera Sarriegiren martxak Zentroko kaleetan zehar interpretatuko dituen desfileari.

Udaletxeko balkoitik Haur Danborradari hasiera emateko bi laguntzaile izango ditu Danbor Nagusiak: Jenerala eta Laguntzailea. Santa Teresa Ikastetxeko Alazne Neire Herrador izango da aurtengo Jenerale eta Elaia Pemán Sáenz de Santamaria Laguntzailea.

Azken urteotan bezalaxe, Haur Danborradarekin batera karroza handi bat aterako da. Bertan XIX. mende hasierako gizarte zibileko pertsonaiak egongo dira. Aurtengoan Santa Teresa Ikastetxearen hurrek interpretatuko dituzte alkatea, notarioa, Donostiako bi hiritar (neska eta mutila), batelaria, arrantzalea, inudea, artzaina, irulea, dendaria, uketaria eta mandazaina. Karrozaren aurretik, 6 palafrezainek desfilatuko dute Kalesan.

Santa Teresa Ikastetxeko Marko Etxezarreta Hermida izango da alkatea, Sofia Novac Notarioa, June Carrillo Arroyo Hiritarra, Naroa Briones Zamora eta Haizea

Prentsa oharra

Nota de prensa



Parra Blacio Batelariak, Julen Martín Gómez Arrantzalea, Maialen Lozano Lamarain eta Noa Usabiaga Martínez Iruleak, Ion Burleigh Arranz Artzaina, Ane Etxezarreta Hermida Dendaria, Sara Ramos Abad Urketaria, eta Iñigo López-Para Prieto Mandazaina.

Haur danborradaren aurkezpen festa

Urtero bezala, Haur Danborradaren lehen ekitaldia Victoria Eugenia Antzokian egingo da urtarrilaren 18an 12:00etan. Bertan, konpainia guztietako ordezkariak parte hartuko dute, eta Donostiako alkate Eneko Goiak hainbat pertsonairi dominak jarriko dizkie eta Haur Danborradako Danbor Nagusiari Aginte Makila emango dio.

Maria Reina eskolak 50 urte

Aurten Maria Reina eskolak 50 urte egiten ditu haur danborrada atera zuenetik. 1973.urtean, eta hainbat alditan saiatu ondoren, Vicente Val Donosti Gaineko lehendakariak konpainia berriaren arduradun gisa konpromisoa hartu eta elkarte konprometitu zuen. Orduz geroztik haur danborradan ateratzen da eta estandartean elkartearen, ikastolaren eta parrokiaren izenak agertzen dira.

Baldintza meteorologikoak txarrak badira

Haur Danborrada bertan behera uzteari buruzko jakinarazpen ofiziala urtarrilaren 20an egingo litzateke, 10:30ean gutxi gora behera, mezu bidez. Gainerako informazioak ez lirateke ofizialak izango.

Urtarrilaren 20an eguraldiak utziko ez balu, irteera igandean, urtarrilaren 21ean egingo litzateke. Eta 21ean ospatu ezingo balitz, urtarrilaren 28an egingo litzateke azken saiakera.

Donostian, 2023ko urtarrilaren 12an